



LEGEZKOTASUN TXOSTENA, EUSKO JAURLARITZAREN ETA AFAS-EN ARTEKO LANKIDETZARAKO PROTOKOLO OROKORRARI BURUZKOA, TELELAGUNTZA NARRIADURA KOGNITIBOA DUTEN PERTSONEI ETA HAIEN SENIDEEI EGOKITZEKO PROIEKTU PILOTUA GARATZEKO

13/2020 DDLCN - IL

I.- AURREKARIAK

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren Aholkularitza Juridikoak goian aipatutako protokolo orokorrari buruzko txostena eskatu du. Txosten-eskaerarekin batera, protokolo orokorraren testua eta jarraian zehazten dugun dokumentazioa bidali dute:

- Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamena, protokolo orokorraren inguruan.
- Azalpen-memoria, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariak izenpetua
- Asociación de familiares, amigos y personas con alzheimer u otras demencias de Gipuzkoa/Gipuzkoako senitartekoen, lagunen eta alzheimerra edo beste dementziaren bat duten



pertsonen elkarte "AFAGI" de Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa) izeneko erakundearen estatutuak.

- Asociación de familiares y amigos de personas con alzheimer y otras demencias de Alava "AFA ARABA" izeneko erakundearen estatutuak.
- Asociación de familiares de personas enfermas de alzheimer y otras demencias de Bizkaia "AFA BIZKAIA" izeneko estatutuak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Errolda Nagusiaren ziurtagiriak, AFAGI, AFA BIZKAIA eta AFA ARABA elkarten Zuzendaritza Batzordeen osarari buruzkoak.

Oraingo gure legezotasun txosten hau igortzen dugu jarraian adierazten diren artikuluetan xedatukoarekin bat etorriz:

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1 b) artikuluan.
- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.222 artikuluan.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) artikuluan.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 71/2017 Dekretuaren 14.1 a) artikuluan.

II.- LEGEZKOTASUN AZTERKETA

A). Xedea

Protokolo orokor horren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta AFAGI, AFA BIZKAIA eta AFA ARABA elkarteen arteko lankidetzak oinarriak ezartzea da, proposamen pilotu bat gara dezan, betion deritzon telelaguntza-zerbitzua, narriadura kognitiboa duten pertsonen eta haien senideen egokitzeko.

B). Izaera juridikoa eta alderdien eskumena

Izaera juridikoari dagokionez, protokolo orokorra sinatzaileen borondatea jasotzea helburu duen dokumentua da. Beraz, proposatutako lankidetzak, kooperazioak, edota sinatzaileek hartutako konpromisoek ez dute berehalako aplikazio juridiko zuzenik izango. Akordio ez arauemailea izanik, legez lotesleak diren eskubideak eta betebeharrak jaso ordez proposamen edo asmo hutsak islatu besterik ez du egiten.

Eskumen materialari dagokionez, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.12 artikulua bakarreko eskumena ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari laguntza soziala arloan.

Eskumen funtzionala, oster, azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasota dago, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen

dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena; hain zuzen ere, 8.1 e) artikuluan, zeinean Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen zaion gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuei buruzko jardun-arloak.

Zehatzago, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuaren 13 artikulua arabera Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari dagozkio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuak garatzea eta telelaguntza-zerbitzu publikoa ematea, telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzko ekainaren 28ko 144/2011 Dekretuak ezarritako eran.

Honen harira, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7 j) artikuluekin bat etorrita, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema, besteak beste, gizarte-ekimena sustatzeko printzipioaren arabera arautuko da. Ildo horretan, botere publikoek irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenek parte-hartzea sustatuko dute gizarte zerbitzuen esparruan eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematan. Honetaz gain, lege horren 22. artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen katalogoa ezartzen du, eta horien artean, 1.6 atalean, telelaguntza-zerbitzua sartzen du. Azkenik, aipatutako legearen 70. artikulua arabera Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek lankidetzako esparru-akordioak ezarri ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabeko erakundeekin, katalogoan sartutako zerbitzuak eskaintzeko erakundearekin ezarritako itunak, hitzarmenak eta kontratuak jasotzeko.

Bestalde, protokolo hau sinatzen duten elkarteak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira eta alzheimerra eta beste demenzia batzuk dituzten pertsonen eta haien senide eta zaintzaileen ongizatean laguntzen dute.

Elkarte horien helburu sozialen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Alzheimerraren edo beste demenzia batzuen gaixotasuna duten pertsonen, haien senideen eta zaintzaileen premietara egokitutako laguntza-zerbitzuak, prebentzio-zerbitzuak eta hezkuntza-zerbitzuak sor daitezzen sustatzea.
- Alzheimerra edo bestelako demenzia duten pertsonen senideei aholkularitza ematea, lege-, soziologia-, ekonomia- eta laguntza-gaietan.
- Alzheimerra edo bestelako demenzia duten pertsonen laguntza ematea, hobetzea eta kontrolatzea, haien bizikaltatea ahalik eta gehien hobetzeko.
- Demenzia duten pertsonen gizarteratzea sustatzea.
- Demenziaren arloan ikerketa eta berrikuntza soziala bultzatzen laguntzea, inplikaturako eragileekin lankidetzan arituz eta, salbuespen gisa, elkartearen helburuetarako estrategikotzat jotzen diren proiektuen kudeaketan parte hartzeko aukera aztertuz.

D) Protokoloaren oinarri juridikoa

Testuaren edukia eta izenburua kontuan izanik, esan dezakegu aztergai dugun protokoloaren eraentza juridikoa jardun-protokolo

orokor bati dagokiona dela, ez hitzarmen bati dagokiona; izan ere, lehenengo estipulazioak ondo zehaztu bezala, protokolo honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta AFAGI, AFA BIZKAIA eta AFA ARABA elkarten arteko lankidetzaz oinarriak ezartzea da, proposamen pilotu bat gara dezaten, betion deritzon telelaguntza-zerbitzua, narriadura kognitiboa duten pertsonen eta haien senideei egokitzeko.

Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 54.1 artikulua honela definitzen ditu hitzarmenak: “Dekretu honen ondorioetarako, eta legearekin bat etorruta, hitzarmenak dira administrazio publikoek, organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek, edo haiei loturikoek edo haien mendekoek, edo unibertsitate publikoek egin eta ondorio juridikoak dituzten akordioak, euren artean egindakoak zein zuzenbide pribatuko subjektuekin egindakoak helburu komun baterako”.

Bigarren paragrafoak, berriz, honela dio: “Edonola ere, ez dira hitzarmentzat hartuko prozedurako jardun-protokolo orokorrak edo antzeko baliabideak baldin eta eduki orokorreko asmo-adierazpen hutsak badira edo administrazioen eta alderdi sinatzaileen helburu komun baterako jardun-borondatea baino adierazten ez badute, eta konpromiso juridiko zehatz eta galdagarririk formalizatzen ez badute”.

Sailkapen horrekin bat egiten du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako protokolo kontzeptuaren definizioak. Hitzarmenak definitu ostean, 47.1 artikulua 2. paragrafoan hauxe ezartzen du: “ez dira hitzarmentzat

hartzeko jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen”.

Ildo horretan, hirugarren estipulazioak zehazten du protokolo orokor hau alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatearen adierazpena dela, eta ez dakarrela lankidetzahitzarmenen berezko konpromiso juridiko zehatz eta galdagarriak formalizatzea.

Ondorioz, betebeharrak juridikorik eratzeko ez duen eta eskatzeko moduko eduki juridikorik gabeko akordio baten aurrean gaudenez, ez gaude beren beregi Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak aurreikusitako lankidetzahitzarmen baten aurrean, jardun-protokolo orokor baten aurrean baizik.

E) Protokoloaren edukia

Protokoloaren azalpen zatian adierazten da zeintzuk diren sinatzen duten subjektuak eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikoarekin jarduten duen eta zer eskumenetan oinarritzen duen bere jarduerak.

Lehenengo estipulazioak protokoloaren xedea adierazten du eta bigarrenak lankidetzahitzarmenaren esparrua ezartzen du.

Hirugarren estipulazioak, araubide juridikoari buruzkoak, azaltzen du protokolo orokor hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera sinatzen dela.

Laugarren estipulazioak adierazten du protokolo honek ez dakarrela gasturik edo konpromiso ekonomikorik aldeetako inorentzat.

Bosgarren estipulazioaren bidez Jarraipen-batzordea sortzen da eta horren osaera eta eginkizunak zehazten dira.

Seigarren estipulazioak protokoloa sinatzen denetik sei hilabeteko indarraldia ezartzen du, baina urtebetera arte luzatzeko aukerarekin, aldeek hala adosten badute.

Zazpigarren estipulazioak, aldaketa-araubideari buruzkoak, adierazten du protokoloa aldatu ahal izango dela, bi alderdiek hala eskatzen dutenean, dagokion gehigarria formalizatuz.

Azkenik, zortzigarren estipulazioak protokoloa azkentzeko arrazoiak zehazten ditu.

III. ONDORIOA

Hori guztia horrela izanik, protokoloaren testua aplikagarri zaion arauketari egokitzen zaiola ondorioztatzen dugu.

Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.

Gasteizen, bi mila eta hogeiko martxoaren hamaikan.